

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

2973

AGINDUA, 2026ko ekainaren 24koa, Hezkuntza Saileko sailburuarena, hutsik dagoen Hezkuntza Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkararen lanpostua (512076/4) izendapen askez betetzeko deialdia ebazteko dena.

Xedapen hauek betez: Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2 artikulua eta Hezkuntzako sailburuaren 2026ko maiatzaren 6ko Aginduaren laugarren oinarria (2026ko maiatzaren 20ko EHAA n argitaratutako agindu horren bidez, Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako lurralde-ordezkararen lanpostua –kodea: 512076, dotazioa: 4– izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarri zen)

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Lurralde-ordezkarari izendatzea Paula Jorge Herrero andrea, Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (kodea 512076, dotazioa: 4; destino-osagarriaren maila: 29, berrazko osagarria: 0-A).

Bigarrena.– Izendapenak 2026ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok e agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 24a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.